

GURE AHOTSA

Markina-Xemein 2023ko apirila



Pertsonak
hartzen doguz ardatz, eta
markina-xemeindar
danen
ongizatea
bermatuko dogu.



Luis Egurrola
Markina-Xemeingo EAJ/PNV hautagaia



Aurreko hauteskundeetan, sahesbidearen proiektua bukatu eta HAPO (Hiri Antolamenturako Plan Orokorra) / PGOU (Plan General de Ordenación Urbana) onartzea jarri genituen erronka bezala, eta lortu dugu!! HAPO onartuta, sahesbidea errealitatea izango da legealdi berrian.

Jasangarritasuna, bidegorriak, auzoen beharrianak, merkataritzari bultzada, gazteentzako etxebizitza sozialak, kirol eta hezkuntza instalazioetan hobekuntzak, kultura, euskara eta berdintasun planak, turismoa, irisgarritasuna,... Markina-Xemeingo herritarrentzat programa zabala diseinatu dugu datozen lau urteetarako.

Markina-Xemein
Aurrera, batera!



2019-2023 legealdiari errepasoa

HAPO

16 urteren ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean Markina-Xemeinek Hiri Antolamenterako Plan Orokor berria lortu du.

Sahiesbidea

Markina-Xemeinetik Etxebarrira doan sahiesbide edo bariantearen proiektua egin, onartu eta lizitazio-fasera eramatea lortu da Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako lanari esker.

Kirol instalazioak

Atxondo Kiroldegia eraberritze integrala egin da: inguratzaile termikoa eta aldagela berriak jarri dira. Bestalde, Barroetako futbol zelaiko belarra aldatu, bolatoki berria eraiki eta frontoi txikia eraberritu da.

ALDE ZAHARRA eraberritzeko ideia lehiaketa eta proiektua egiteko partida osatu da.

KANPOSANTUAN klaustroaren paretak saneatu eta pintatu dira.

SAN MIGEL ERMITAN obrak egin dira eta argizatze berria jarri da.

ESPERANZA eraikina eraberritu da. XACOBEO deialdiko dirulaguntza lortuta, laister hasiko dira lanak.

SEGURTASUNA Argiteria gehitu da herriko hainbat gunetan eta kamerak jarriko dira bi tuneletan.

JOLASGUNEAK Herriko jolasgune guztiak berritu dira.

MURGA BASOA Herriar denentzat ireki da.

PROZESU PARTE-HARTZAILEAK Herriko talde eta herritarrentzat batzar parte-hartzaileak bultzatu dira: kultura, kirola, jaiak eta euskara. Gainera, lehen aldiz, aurrekontu parte-hartzaileak egin dira.

Lehenengoz egin diren planak:

IRISGARRITASUN PLAN BAT EGIN DA eta hurrengo urteetarako ekintzak zehaztu eta beste batzuk dagoeneko abiatu dira:

- Esperantza eraikinak igogailua izango du uda honetan.
- Barinaga soziedadeko sarreran arrapala jarri da.

HARRERA PLAN BAT SORTU DA jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzeko. Gainera harrera gida bat ere egin da.

ENERGIA PLANA DISEINATU ETA MARTXAN JARRI DUGU herri jasangarriago bat izateko:

- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak.
- Panel termiko eta fotovoltaiakoak eta inguratzaile termikoa jarri dira Atxondo kiroldegian.
- Plaka fotovoltaiakoak jarri dira 'Uni' frontoiaren teilatuan.
- Barroeta futbol zelaian aerotermia sistema jarri da.
- Lehen komunitate energetikoaren proiektua abiarazi da Berriatua, Ispaster eta Etxebarriako udalekin.
- Bekobenta ikastetxean plaka fotovoltaiakoak jartzeko aurrekontua onartu da eta berehala jarriko dira.

Auzoetan:

Auzo guztietan bide konponketak eta biondak jarri dira: Iturretako soziedadean hobekuntzak egin dira, Iruzubietan bi fasetan gauzatu diren obrak egin dira, Barinagako sozietatean terraza handitu eta frontoian sare berriak jarri dira, Pintatze lanak egin dira Larruskainen, San Martin ermita konpondu da eta Goierri auzoko gunek batera ura eraman da.

Markina-Xemein

Zer gehiago?

MUGIKORTASUN PLANA egin da, bizikletei herriko errepide guztietan lehentasuna emanez.

HERRIKO MERKATARI ELKARTEAREKIN elkarlanean PERCO (Plan Especial de Revitalización Comercial) plana bukatu da eta Markina-Xemeingo merkataritzaren diagnostikoa egin da. Zerbitzu eta merkataritza gida berria ere atara da.

TURISMOA: Herriko ondarearen ezagutza errazteko eta balioan jartzeko Ondarearen Ibilbidea eta Memoriaren Ibilbidea sortu dira. Autokarabanen guneko proiektua egiten ari gara kanposantu ondoko aparkalekuaren goikaldean kokatzeko. Gainera, turismo plano berria atara dugu, doako wifi puntuak ezarri dira eta Eskape Circuit jokoak sortu da.

EUSKARA: Udalak urrezko 'Bikain' ziurtagiria lortu du. Euskara ikasteko dirulaguntzak sustatu dira eta euskara errefortzu-klaseak jarri dira.

KULTURAN aurrekontua handitu da eskaintza berriak sortuz.

BERDINTASUN alorrean Bigarren Berdintasun Plana egin da eta, lehenengoz, Berdintasun teknikari bat ere badaukagu. Emakumeen aurkako indarkeriari ez!, LGTBIQ+ eskubideen aldeko ekintzak... bezalako ekimen ezberdinak burutu dira.

HEZKUNTZAN hezkidetza proiektua landu da Bekobenta eta BeraKruz ikastetxeekin batera.

ONGIZATEAN hainbat egitasmo abiatu dira: Herri Lagunkoia ekimena, hileta zibilen ordenantza berria, ke-detektigailuen instalazioa adinekoen etxeetan, Gizarte zerbitzu gida berria eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin EtxeTIC eta ezgaitasuna duten pertsonentzako zentroa Markina-Xemeinen eraikitzeak hitzarmena sinatu da.

GAZTERIAN Olgetan udalekuak bultzatzeko apustuarekin irmo mantendu gara eta Gaztelekuan sukalde berria egin da. Bestetik, Gababus zerbitzua eskualdeko udalerriekin batera eskaini da.

HERRI BASOA handitu da. Hainbat urteren ondoren, baso-eremu berri bat gehitu da Larruskainen.

Udaletik elkarlanean egindako beste ekimen batzuk:

Leartibai Fundazioarekin eskualdeko garapen ekonomikoko plan estrategikoa egin da.

Landa Garapenean, lehen sektorea sustatu eta urtean zehar dauden azokak antolatu dira.

Amankomunazgoarekin konpost kanpaina eta gizarte larrialdietarako laguntza guztiak ordaintzeko konpromisoa urtero berretsi da.

Eta bien bitartean... pandemia bat kudeatzea tokatu zaigu.

2023 urterako egitasmoak:

Hainbat egitasmo eta inbertsio martxan jartzeko, aurrekontuak aurkeztu genituen martxoaren 28ko plenoan eta **EH Bilduk kontrako botoa eman zien egitasmo guzti hauei:**

- Auzobideen partida handitzea.
- Olgetan udalekuak, Gababus eta hondartzarako autobusa.
- Bi erraldoi berri egiteko eta MARKArte aurrekontuak.
- Beti-Jai jubilatuen kalefazioari konponbidea ematea.
- Turismo proiektua eta Gerra Zibilaren ibilbidea egitea.
- Kanposantuko klaustroko teilatu berria egitea.
- Uhagonen biomasa eta Musika Eskolan plaka fotovoltaiakoak jartzea.
- Bekobentako BHI eraikinean gela berri bat ateratzeko proiektuaren aurrekontua.
- Igoz eta Larruz-era ura eramateko proiektuan parte-hartzea.
- Barroeta futbol zelaian sare berriak jartzea.
- Iturretako soziedadean tximinia berregin eta San Kristobal ermitako aterpeko teilatu konponketa.

Gure taldearen ahotsa



gazteak

Asier
Urruzuno
Blazquez

Gure helburua, gizarte kohesionatu bat eraikitzea da eta horretan, gazteok asko dugu esateko. Bizikidetza sustatuko dugu Markina-Xemeinen, adibidez, Gazteleku eta Olgetan udalekuak mantendu eta indartu eta ikastetxeekin batera, hezkidetza programak garatzen jarraituz.

Kalitatezko hezkuntza bat izateko, beharrezkoa da azpiegitura egokia izatea, horregatik, Bekobentan hobekuntzak egiten jarraituko dugu, besteak beste, BHIIn gela berri bat ateratzeko proiektua aurrera eramanez. Etorkizuneko Markina-Xemein, gazte guztientzat askatasuna, aukera berdintasuna eta aniztasuna bermatuko duen herria izango da.



euskara

Irune
Duralde
Muguruza

Markina-Xemein herri euskalduna da, euskararen arnagune izaten jarritu behar du, gure nortasuna eta gure kultura euskaraz direlako. Ume, gazte eta nagusi euskaraz bizitzeko bideak jorratuko ditugu eta hortara, dirulaguntzak bideratuko ditugu, besteak beste, eskoletan errefortzu klaseak emateko. Herrira etorri berri direnekin, harrera plana garatuko dugu.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, urratsak emoten jarraituko dugu, egin berri den bigarren berdintasun plana garatuz, denok betaurreko moreekin gure egunerokotasuna ikusi dezagun. Horretarako, formakuntza, hitzaldiak eta beste kultur ekitaldi ezberdinak antolatuko ditugu.




kirola

Alex
Larrinaga
Urrutia

Azken legealdian, kirola izan da gure apustuetako bat eta oraindik badago zer hobetu: Barroetan atletismo pista berri eta, ondoan, Pump Track berria egitea. Pilota eta Markina-Xemein, batera doaz eta bai zesta zein eskuz, gure neska-mutilak aukerak izan ditzaten lanean jarraituko dugu. Kirola, osasuna da eta hori da gure apustua.

Markina-xemeindar denon ongizatea bermatuko dugu, txiki, gazte, ezintasuna dutenentzat eta nagusientzat. Alde batetik, Herri Lagunkoia proiektuarekin bat egin dugu, eta bestetik, EtxeTIC proiektua Markina-Xemeinera ekartzea lortu dugu. Egistamo honetan, eraikin berri bat egingo da ezgaitasuna dutenentzako etxe tutelatuak eta eguneko zentro bat izango dituen. Gainera, San Roke Fundazioak lau plaza markina-xemeindarrentzat gordeko ditu.

Gizarte zerbitzuetara dirulaguntzak bideratzen jarraituko dugu, inor baztertuta gera ez dadin. Elkarregaz eta denontzat den Markina-Xemein bat eraikiko dugu.



ongizatea

Amaia
Larrañaga
Ugarte



azpiegiturak

Jabi
Alberdi
Ibaibarriaga

Gure herriak aurrera egiteko garapen ekonomiko sendoa behar du. Horretarako, Leartibai Fundazioarekin ekintza ekonomiko berriak herrira ekartzea da gure helburua. Etxebarrira doan sahiesbidea errealitate bat izango da hurrengo legealdian eta, horrek, herrigunea beste era batera egituratzeko aukera emango digu.

Komunitate energetikoak sortzeko ere lanean gaude. Gure ondorengoei, gustora bizitzeko eta lana izateko aukerak dituen Markina-Xemein bat utzi nahi diegu.



kultura

Fran
Rueda
Muñoz

Turismoak, gure herriko jarduera ekonomikoan eragina du. Markina-Xemein herri erakargarri bat izateko, turismoa era jasangarrian landu nahi dugu.

Gure herriko merkataritza egoera aztertzeko eta indartzeko plan berezia egin da eta hortik atera den ekintza-plana oinarri hartuta, merkataritza elkarlanean, merkataritza bultzatuko dugu.

Kultura sustatzen ere jarraituko dugu. Kultura gure bizitza da, mugimendua da, gure hizkuntza da, gure nortasuna eta ondarea. Kuturak, bizitza ematen dio Markina-Xemeineri.

Azken lau urteotan gogor egin dugu lan. Gure programan aurkeztu genituen proiektuak aurrera atera ditugu, gainera, pandemia bat kudeatzen genuen bitartean. Berrito ere gogotsu aurkezten gara etorkizuneko Markina-Xemein bat marraztuko duen lan-talde sendo eta programa landu batekin. Gure lanerako estiloa, herritarrei entzunez, humiltasunetik eta apaltasunetik, zintzo eta eraginkor, herritarrak dituzten arazoei konponbidea ematea da, beti.

Markina-xemeindarra naiz, herri hau maite dut eta herrigintzan, lan, lan eta lan egingo dut.

MARKINA-XEMEIN



Luis
Egurrola
Arakistain

Elixabete
Etxanobe
Landajuela

BIZKAIA

Gaur Bizkaian familia askok, etorkizuna arduraz ikusten dute elikagaien prezio igoera, ohiko gastuen eta hipoteka igoeragatik. Eta egoera horri aurre egiteko, erakunde sendo, prestatuak eta eguneroko beharrezkoak benetako erantzuna emango dioten erakundeak behar ditugu. Denona den euro bakoitzarekin, konpromisua hartzen dugu enplegu gehiago eta hobe sortzeko. Baita aukerak eskeintzeko gure gazteei, pertsona nagusiak zaintzeko, gure ingurugiroa babesteko eta zerbitzu publiko onenak bermatzeko. Mundura zabaltzeko, baina gure nortasuna eta gure kultura babestuz, euskara babestuz.

10 Markina-Xemein hobetzeko proiektu



SAIHESBIDE BERRIA ESTREINATUKO DUGU LEGEALDI HONETAN

Azken urteetan administrazio-izapide guztiak gainditu ondoren, legealdi berrian errealitate bihurtuko da Markina-Xemein eta Etxebarri lotuko duen saihesbidea. Lanak 2023ko irailean hasi eta 2026an amaituta egotea aurreikusten da. Honi esker herrigunea eraldatzeko aukera izango dugu, besteak beste, Plazabarripe eta liburutegiaren eraikinak eta ingurune osoa.



IRISGARRITASUNA ETA IRAUNKORTASUNA ARDATZ

Markina-Xemein eta Etxebarria lotzeko beste bide bat ere egingo dugu, bizikletentzako bidea. Heliportutik Kareaga poligonora bide gorria egingo dugu. Alde zaharra eraberritzeko proiektua martxan jarri eta auzoetan beste irisgarritasun neurri batzuk hartuko dira. Bizkaibus zerbitzua hobetzeko proposamenak egingo ditugu.



ARGIA ETA EDATEKO URA AUZO ETA LANDA-EREMURA ZABALTZEN

Auzo eta landa-eremuko etxe eta baserrietara edateko uraren sarea luzatzen jarraituko dugu; argi-puntu berriak baserrietan eta auzo eta landa-eremuko bideen konponketak. Bestalde, Neiker eta Ur Patzuergoarekin elkarlanean daukagun proiektuaren baitan, iturburu diren basoak gureganatzen saiatuko gara.



TOKIAN TOKIKOA, HEMEN GUREA!

0 kilometroko produktuak baloreari jarri eta belaunaldi-txandaketa ziurtatzeko haztegia egingo dugu eskualdean. Herriko merkataria elkarrekin lankidetzan Merkataritza Indartzeko Plana (PERCO) garatuko dugu. Jarduera ekonomikoa bultzatzearen aldeko politikari eutsiko diogu, industria-proiektu barriak erakarriz.



KULTURA, HIZKUNTZA ETA ETXEBIZITZA GIZARTE KOHESIONATU BATEN OINARRI

Kultur ekitaldietarako eraikin berri bat lortzeko ahaleginean jarraituko dugu. Gure kultura, hizkuntza eta tradizioak bizirik mantentzeko lan egingo dugu eta herriko taldeak baloreari jarriko ditugu behar duten laguntza emanez. Euskara herritar guztiengana, bereziki kanpotik etorritakoengana, heltzeko bideak erraztuko ditugu. Gazteentzako etxebizitza sozialak sustatuko ditugu eta kalitatezko gizarte zerbitzuen aldeko apustua egiten jarraituko dugu.



6

HEZKUNTZAKO ETA KIROL INSTALAZIOEN HOBEKUNTZA

Kalitatezko hezkuntza bat izateko, azpiegitura egokiekin hornituta egon behar da, horregatik, BHI eraikinean gela berri bat eraikiko dugu. Egun ditugun kirol ekipamenduetan harreta berezia jarriko dugu: kiroldegiko hurrengo hobetze-faseak abiatuz eta Barroetako atletismo pista berrituz. Gainera, eremu horretan, Pump Track berri bat eraikiko dugu.

7

HERRITAR GUZTIENTZAKO ONGIZATEA BERMATU

Herri Lagunkoia proiektuaren bidez zahartze aktiboko programak bideratuko dira. Umeentzako estalitako jolasgune berri bat proposatuko da eta gazteentzako aisialdi programak sustatuko ditugu, Gaztelekua eta Udalekuak indartuz. Etorkinentzako harrera-plana garatuko dugu, integrazioa errazteko.

8

HERRIRA BISITARIAK ERAKARTZEKO EKIMENAK

Artibai ibilbidearen (Etxebarria-Markina-Xemein-Berriatua-Ondarroa) aldeko apostuari eutsiko diogu. Herriko ondarea sustatzen jarraitu eta egin berri dugun autokarabanentzako eremuaren proiektua gauzatuko dugu. Gainera, Markina-Xemeindik igarotzen diren bisitarientzako informazio-euskarri berriak jarriko ditugu, erromesen turismoari arreta berezia eskainiz.

9

IRAUNKORTASUNAK JORRATUKO DU GURE ETORKIZUNA

Klima aldaketaren aurkako borrokari ekarpena eginez, udal eraikinetan energia berriztagarrien instalazioak jartzen jarraituko dugu eta kontsumo altuko ekipamenduak berritu. Sortu dugun EKIOLA energia-komunitatea martxan jarriko dugu. Markina-Xemein jasangarri baten aldeko apustua berretsiz.

10

BERDINTASUN PLANETIK BERDINTASUNA HEDATZERA

Berdintasuna gure politika publikoen nortasun-seinale gisa ulertzen dugu. Berdintasun eraginkorra, benetako eta zeharkako politikekin. Horregatik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko neurriak hartzen jarraituko dugu, aurreko legealdian garatutako plana betez.



Markina-Xemeingo EAJ-PNV zerrenda

- | | |
|-------------------------------|---|
| 1.- Luis Egurrola Arakistain | 9.- Sara Gerenabarrena Laka |
| 2.- Iruñe Duralde Muguruza | 10.- Begoña Zelaia Guenaga |
| 3.- Alex Larrinaga Urrutia | 11.- Ibrahima Ndiaye Sima |
| 4.- Fran Rueda Muñoz | 12.- Angel Kareaga Laka |
| 5.- Amaia Larrañaga Ugarte | 13.- Lourdes Barinagarrementeria Ansola |
| 6.- Asier Urruzuno Blazquez | 14.- Ainhoa Amutxastegi Garitaonandia |
| 7.- Jabi Alberdi Ibaibarriaga | 15.- Jose Ansola Kareaga |
| 8.- Idoia Arrieta Arregi | 16.- Elisa Onaindia Viteri |

Eman zure botoa!

✉ eajpnvmarkinaxemein@gmail.com

☎ 630 460 215

📷 [eaj_markinaxemein](#)

📌 EAJ PNV Markina-Xemein



➤ Consulta la versión en castellano de Gure Ahotsa en nuestras redes sociales.